



**MEMORIA TEKNIKO ZURIGARRIA,
EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO 2/2015 FORU
ARAUAREN EBALUAZIOA EGITEKO
LAGUNTZA TEKNIKO KONTRATATZEKO
(ESPEDIENTEA: 2020013CO700)**

**MEMORIA TÉCNICA JUSTIFICATIVA PARA LA
CONTRATACIÓN DE LA ASISTENCIA TÉCNICA
PARA LA ELABORACIÓN DE LA EVALUACIÓN
DE LA NORMA FORAL 2/2015 PARA LA
IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES
(EXPEDIENTE: 2020013CO700)**

Gaien aurkibidea:

- 1 - Testuingurua eta zergatia
- 2 - Kontratuaren objektua
- 3 - Sorta banaketarik ez
- 4 - Litzitazio aurrekontua, balio zenbatetsia eta iraupena
- 5 - Adjudikazio irizpideak
- 6 - Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa
- 7 - Kaudimen teknikoa
- 8 - Baliabide pertsonalak atxikitze baldintza
- 9 - Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak
- 10 - Aurrekontu esleipena
- 11 - Helburu estrategikoen lotura

Eranskina

Índice de materias:

- 1 - Contexto y justificación
- 2 - Objeto del contrato
- 3 - No división por lotes
- 4 - Presupuesto de licitación, valor estimado y duración
- 5 - Criterios de adjudicación
- 6 - Solvencia económica y financiera
- 7 - Solvencia técnica
- 8 - Requisito de adscripción de medios personales
- 9 - Condiciones especiales de ejecución del contrato
- 10 - Consignación presupuestaria
- 11 - Vinculación con objetivos estratégicos

Anexo



1 - Testuingurua eta zergatia

Azken hamarkadetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna pixkanaka sartzen joan da administrazio publikoen agenda politikoan. Hala, nazioartean, Europar Batasunean, Espainiako Estatuan edo Euskal Autonomia Erkidegoan bertan araudi garrantzitsua eta ugaria sustatu da, botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko duten konpromisoa agerian uzten duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendaritza nagusi bat sortu zuen 2007an, eta zuzendaritza horri esleitu zion emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru politikaren ardura, bai eta giza eskubideena eta garapenerako lankidetzarena ere, *Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Foru Plana (2008-2011)* onartuz.

2011n, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusi espezifiko bat sortu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika eraginkorrak abian jartzea sustatzeko, bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak erreproduzitzen dituzten egiturazko baldintzetan esku hartuz.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan aurrera egiteko, horiek finkatzeko eta jasangarritasuna emateko helburu berarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, inskribatu zen. Arau hori da, hain zuzen ere, foru mailako berdintasunaren arloko lehen tresna arauemailea, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Arau hori da Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduna gidatu behar duten printzipioak eta helburuak ezartzen dituen esparru tresna, baita hori lortzearen esku hartzeko ildo nagusiak definitzen dituena eta hori egin ahal izateko barne antolaketaarako baldintzak sortzen dituena.

1 - Contexto y justificación

En las últimas décadas la igualdad de mujeres y hombres ha ido introduciéndose de manera progresiva en la agenda política de las administraciones públicas. Así, tanto a nivel internacional, como de la Unión Europea, el Estado Español o la propia Comunidad Autónoma del País Vasco se ha promovido una importante y abundante normativa que evidencia el compromiso de los poderes públicos para lograr la igualdad de mujeres y hombres.

La Diputación Foral de Gipuzkoa creó en 2007 una dirección general a la que le asignó la responsabilidad de la política foral de igualdad de mujeres y hombres, además de la de derechos humanos y cooperación al desarrollo, aprobando el *I Plan Foral para la igualdad de mujeres y hombres en Gipuzkoa (2008-2011)*.

Ya en 2011 se creó una Dirección General de Igualdad específica, al objeto de promover la puesta en marcha de políticas efectivas para la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, desde la intervención sobre las condiciones estructurales que reproducen las desigualdades de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida.

Con este mismo objetivo de avanzar, consolidar y dar sostenibilidad a las políticas para la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa se inscribió la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres*. Dicha norma constituye la primera herramienta normativa en materia de igualdad a nivel foral, en el marco de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Esta norma constituye el instrumento marco que establece los principios y objetivos que deben guiar la actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, define las líneas principales de intervención para su logro, y crea las condiciones de organización interna para poder hacerlo.



Foru arauak bost titulu ditu, eta berrogeita hemeretzi artikulua, lau xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen:

- Atariko titulua: xedapen orokorrak biltzen ditu. Foru arauaren xedea, arau-esparrua eta eremua zehazteaz gain, arauaren printzipio orokorrak ere zehazten dira.
- I. titulua: hiru kapitulutan egituratuta dago, eta eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa arautzen dituzte.
- II. titulua: emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika espezifikoa arautzen ditu. Politika horiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak garatu behar ditu.
- III. titulua: bederatzi kapitulutan banatzen da, eta Gipuzkoako foru administrazio publikoaren jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak arautzen ditu. Neurri horiek foru departamentu eta erakunde guztiek garatu behar dituzte.
- IV. titulua: bost kapitulutan banatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku-hartze arloetatik emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeaz arduratzen da. Gainera, indarkeria matxistaren aurkako borroka jorratzen du bosgarren kapituluan. Horregatik guztiatik, foru departamentu eta erakunde guztien ardura da IV. titulu hau ezartzea.

Azkenik, hirugarren xedapen gehigarriak aurreikuspen espezifiko bat du, foru arauaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Horretarako, Foru Arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea sortzea ere aurreikusten da.

Batzorde hori oraindik martxan jartzeke dago, eta bere ardurak izango dira urteko jarraipen txostenak egitea eta bere eraginkortasun osorako neurri egokiak proposatzea.

La Norma Foral se estructura en torno a cinco títulos y contiene cincuenta y nueve artículos, cuatro disposiciones adicionales, dos disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales:

- Título preliminar: contiene las disposiciones generales. Además de determinarse el objeto, marco normativo y ámbito de la norma foral, se marcan los principios generales de la misma.
- Título I: se estructura en tres capítulos, que regulan las competencias, funciones, organización y financiación.
- Título II: regula las políticas específicas para la igualdad de mujeres y hombres, que deben ser desarrolladas por el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres.
- Título III: se divide en nueve capítulos y regula las medidas para integrar la perspectiva de género en la actuación de la administración pública foral de Gipuzkoa y que deben ser desarrolladas por todos los departamentos y organismos forales.
- Título IV: dividido en cinco capítulos, se ocupa de la promoción de la igualdad de mujeres y hombres desde las áreas de intervención de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Aborda, además, la lucha contra la violencia machista, en su capítulo quinto. Por todo ello, la implementación de este título IV es responsabilidad también de todos los departamentos y organismos forales.

Finalmente, la disposición adicional tercera contiene una previsión específica dirigida a realizar el seguimiento y evaluación de la propia Norma Foral. Para ello se prevé, incluso, crear una Comisión de Seguimiento y Evaluación de la Norma Foral.

Dicha Comisión, aún pendiente de puesta en marcha, es la responsable tanto de los informes anuales de seguimiento, como de la propuesta de las medidas oportunas para su plena eficacia.



Xedapen berean ezartzen da, halaber, batzorde horrek bost urtean behin foru arauaren ebaluazio txosten bat egingo duela eta Batzar Nagusiei helaraziko diela, eta Batzar Nagusiek egoki irizitako neurriak hartuko dituztela hura berri edo aldatzeko.

Orain, xedapen horretan ezarritakoa bete eta *Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren* lehen ebaluazio txostena egiteko beharra planteatzen da, hain zuzen ere foru arauaren indarraldiko lehen bost urteei buruzkoa (2015-2020).

2 - Objektua

Kontratazioaren xedea da *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren* ebaluazioa egitea, 2015etik 2020. urtera bitarteko bosturtekoari dagokiona, haren betetze maila ezagutzeko, hura aplikatzean sortu diren zailtasunak identifikatzeko eta ondoren erabakiak hartzen laguntzeko.

3 – Sorta banaketarik ez

Ez da bidezkoa kontratua sortetan banatzea, *9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak*, 99.3 artikulua b) puntuan xedatutakoaren arabera. Izan ere, sortetan banatzeak zaildu egingo luke zerbitzua, ikuspegi teknikitik, modu homogeneoan gauzatzea, eta, aldi berean, prestazio desberdinak koordinatzeko zailtasun handiak ekarriko lituzke.

4 - Lizitazio aurrekontua, balio zenbatetsia eta iraupena

Kontratuak irauten duen sei hilabeteetarako, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua da 62 000 euro gehi % 21eko BEZaren 13 020 euro, guztira 75 020 euro.

Zenbateko horren barruan sartzen dira enpresa adjudikaziodunak eskatutako zerbitzua emateko egin ditzakeen gastu guztiak, honela banakatuta:

En la misma disposición también se establece que esta Comisión realizará, cada cinco años, un informe de evaluación de la Norma Foral que trasladará a las Juntas Generales, quienes acordarán las medidas que consideren más adecuadas para su reforma o modificación.

En este marco, se plantea la necesidad de cumplir con lo establecido en dicha disposición y realizar el primer informe de evaluación de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres*, correspondiente a los cinco primeros años de vigencia de la Norma Foral, 2015-2020.

2 - Objeto

El objeto de la contratación es realizar la evaluación de la *Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres*, en el quinquenio comprendido entre 2015, año de su aprobación, y 2020, que permita conocer su grado de cumplimiento, identificar las dificultades que han podido surgir durante su aplicación, y contribuir en la posterior toma de decisiones.

3 - No división por lotes

Se considera que no procede la división del contrato en lotes, de conformidad con lo establecido en el apartado b) del artículo 99.3 de la *Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público*, ya que, la división en lotes dificultaría la ejecución homogénea desde el punto de vista técnico, a la vez que implicaría serias dificultades de coordinación de las diferentes prestaciones.

4 - Presupuesto de licitación, valor estimado y duración

Para los seis meses de duración del contrato, el presupuesto base de licitación será de 62 000 euros más 13 020 euros de IVA 21 %, total de 75 020 euros.

Dentro del importe citado se entienden incluidos todos los gastos en que la empresa adjudicataria pudiera incurrir en la prestación del servicio demandado, desglosados de la siguiente manera:



Kostuen banaketaren aurreikuspena / <i>Estimación de desglose de costes</i>		
Kontzeptuak / <i>Conceptos</i>	euroak, BEZa barne / euros, IVA <i>incluido</i>	%
Kostu zuzenak / <i>Costes directos</i>	59 265,8	79,0
Zeharkako kostuak / <i>Costes indirectos</i>	9 752,6	13,0
Enpresaren irabazia / <i>Beneficio empresarial</i>	6 001,6	8,0
Guztira / <i>Total</i>	75 020,0	100,0

Kontratuari atxikitako langileen soldaten kostuei (kostu zuzenak) dagokienez, kontuan hartu da Gipuzkoako Bulegoetako hitzarmen kolektiboa (hitzarmenaren kodea 2000915 da. 2009ko otsailaren 23ko GAO, 35 zk., soldaten taulen eguneratzea). Ulertu behar da hitzarmen kolektibo hori dela, analogiaz, enpresa lizitatzailerik posiblei aplikatzekoa.

En lo que se refiere a los costes de salarios del personal adscrito al contrato (costes directos), se ha tenido en cuenta el convenio colectivo de Oficinas y Despachos de Gipuzkoa (código convenio nº 2000915; BOG nº 35, de 23 de febrero de 2009, actualización de tablas salariales). Cabe entender que es este convenio colectivo, por analogía, el de aplicación para las posibles empresas licitadoras.

Kontratua 6 hilabeterako proposatzen da. Horrela, kontratuaren balio zenbatetsia ondorengo taulan adierazitakoa izango litzateke.

El contrato se propone para 6 meses. De esta forma, el valor estimado del contrato sería el que se indica en la tabla siguiente.

Kontratuaren balio zenbatetsia / <i>Valor estimado del contrato</i>	
Kontzeptuak / <i>Conceptos</i>	€ zenbatekoa (BEZik gabe) / <i>importe (sin IVA)</i>
Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua / <i>Presupuesto base de licitación</i>	62 000
Guztira / <i>Total</i>	62 000

5 - Adjudikazio irizpideak

Adjudikazio irizpideei dagokienez, erabaki da formulen aplikazioaren arabera kuantifikatzen diren irizpideei balio-judizioaren bidez balioetsi daitezkeenei baino balio handiagoa ematea.

5 - Criterios de adjudicación

En cuanto a los criterios de adjudicación, se ha optado por dar mayor valor a los criterios de valoración cuya cuantificación depende de la aplicación de fórmulas, frente a aquellos que puedan valorarse mediante un juicio de valor.



Horrela, kontratuaren xedea betetzeko aurkeztutako proposamen teknikoa eta lan plana balorazio-irizpideen % 45eko balio-judizioaren bidez baloratzen dira; aldiz, lantaldearen egokitasuna formulak aplikatuz baloratzen da, eta formulen bidez baloratu beharreko irizpideen % 4 da, bien artean batuz baloratu beharreko irizpideen % 49.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, *Sektore Publikoko Kontratuak*, 145.4 artikuluan arautzen du, xedetzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten kontratuetan kalitatearekin lotutako irizpideak eskaintzen balorazioari eman ahal zaion puntuazioaren gutxienez ere ehuneko 51 izango direla. Berrogeita batgarren xedapen gehigarriaren arabera, izaera intelektuala aitortzen zaie arkitektura, ingeniari, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuei. Alabaina, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren hainbat ebazpenek –besteak beste, 946/2017, 544/2018, 1111/2018 eta 1141/2018–, argudiatzen dute nahiz eta “[...] zerbitzuen eskaintza guztietan, neurri handiagoan edo txikiagoan, giza adimenaren funtzioek esku hartzen duten [...]”, “[...] interpretatu behar dela zuzentaraua obra proiektuaren antzeko prestazioak dituzten kontratuei buruzkoa dela; hau da, berez gizakiarenak diren prozesu mentalei lotutako kuantifikatu ezin daitekeen elementu immaterial bat nagusitzen den jardura bat dakartenak, eta, gainera, giza adimenaren gaitasun gorenenak erabiltzea dakartenak; batez ere, berrikuntza edo nolabaiteko sormen maila bat eskatzen dutenak [...]”. Are gehiago, aipatutako ebazpenek gaineratzen dute kontratuaren xedean “[...] bere izaera berritzaile eta originala gailendu behar dela [...]”, izaera intelektualtzat kalifikatzeko, eta ondorioztatzen du “[...] SPKLren 145.4 artikulua aipatzen duen izaera intelektualak berekin dakarrela jabetza intelektualak babestutako sormena arkitekturaren, ingeniariaren, aholkularitza teknikoaren eta hirigintzaren arloetan [...]”.

Horrenbestez, kontratuaren xedea kontuan hartuta, ez du jabetza intelektualak babestutako sormentzat jo daitekeen ezaugarri berritzailerik edo jatorrizkorik, beraz, kalitatearekin lotutako balorazio irizpideek 49 puntu dituzte.

Así, la propuesta técnica y el plan de trabajo presentados para dar cumplimiento al objeto del contrato se valoran mediante juicio de valor representado por el 45 % de los criterios de valoración, mientras que la adecuación del equipo de trabajo se valora mediante la aplicación de fórmulas y representa el 4 % de los criterios a valorar mediante fórmulas, sumando entre los dos el 49 % de los criterios a valorar.

El artículo 145.4 de la *Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público* regula que los contratos que tengan por objeto prestaciones de carácter intelectual –según la disposición adicional cuadragésima primera, son de carácter intelectual los servicios de arquitectura, ingeniería, consultoría y urbanismo– los criterios relacionados con la calidad deberán representar, al menos, el 51 por ciento de la puntuación asignable en la valoración de las ofertas. No obstante, varias resoluciones del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales –entre otros, 946/2017, 544/2018, 1111/2018 y 1141/2018–, argumentan que si bien “[...] en toda prestación de servicios intervienen en mayor o menor medida funciones humanas intelectivas [...]”, “[...] debe interpretarse que la Directiva se refiere a aquellos contratos con prestaciones análogas al proyecto de obras; es decir, que impliquen una actividad en que predomina el elemento inmaterial no cuantificable asociado a los procesos mentales propiamente humanos, y, además, implique el uso de las más altas facultades intelectivas humanas; destacadamente, aquellas que suponen innovación o un cierto grado de creatividad [...]”. Más aún, en las mencionadas resoluciones añaden que en el objeto del contrato debe “[...] predominar su carácter innovador u original [...]” para calificarlo de carácter intelectual, para concluir que el carácter “[...] intelectual al que se refiere el artículo 145.4 de la LCSP implica la creatividad amparada por propiedad intelectual en los ámbitos de la arquitectura, ingeniería, consultoría técnica y urbanismo [...]”.

Por consiguiente, atendiendo el objeto del contrato, se considera que no se caracteriza por su carácter innovador u original, que implique la creatividad amparada por propiedad intelectual, por lo que cabe que los criterios de valoración relacionados con la calidad sumen 49 puntos.



Eskaintza ekonomikoa baloratzeko formulari dagokionez, *III. eranskinean* jasotakoa proposatzen da. *Kontratazioaren kudeaketako jardunbide egokiei buruzko jarraibideak, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko ekainaren 19ko Erabakiaren bidez onartuak, zeinaren bidez onartu baitziren Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduren faseetan klausulak txertatzeko jarraibideak.*

Memoria honen eranskinean jasotzen dira eskaintzen alderdi kualitatiboak baloratzeko erabiliko diren alderdi teknikoak eta balorazio-irizpideak. Oro har, balio-irizpideen bidez baloratu beharreko irizpideak balorazioaren % 45 dira, eta formulen bidez baloratu beharreko irizpideak puntuazioaren % 55 dira.

6 - Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

Eskatzen da kontratistaren urteko negozio bolumena izatea, hain zuzen ere azkeneko hiru urte amaituen artetik negozio bolumen handieneko urteari dagokiona, 40.000 eurokoa edo handiagoa.

7 - Kaudimen teknikoa

Kaudimen teknikoa egiaztatzeko, berriz, lan honen xedearekin lotuta azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztu behar da, eta, bertan, zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua, adierazi behar dira.

Kaudimen teknikoa badagoela jotzeko, egiaztatu beharko da gutxienez zerbitzu bat eman izana, kontratu honen antzeko xedea duena eta 15 000,00 euroko edo gehiagoko zenbateko burutua duena (BEZa barne).

Jasotzailea sektore publikoko erakunde bat bada, eskumena duen organoak bisatutako edo egiaztatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko da; jasotzailea subjektu pribatua bada, berriz, horrek emandako ziurtagiriaren bidez, eta halakorik ez bada, enpresaburuaren deklarazioaren bidez.

Respecto a la fórmula de valoración de la oferta económica, se propone la que se recoge en el *Anexo III. Directrices sobre buenas prácticas en la gestión de contratación*, aprobada por el *Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, de 19 de junio de 2018, sobre aprobación de las directrices para incorporar cláusulas en las fases de los procedimientos de contratación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

En el anexo a la presente memoria se recogen los aspectos técnicos y criterios de valoración que se utilizarán para valorar los citados aspectos cualitativos de las ofertas. En conjunto, los criterios a valorar con criterios de valor representan un 45 % de la valoración, y los criterios a valorar mediante fórmulas alcanzan el 55 % de la puntuación.

6 - Solvencia económica y financiera

Se exige que la empresa contratista tenga un volumen anual de negocios referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos, por importe igual o superior a 40.000 euros.

7 - Solvencia técnica

La solvencia técnica se acreditará mediante una relación de los principales servicios prestados durante los últimos tres años relacionados con el objeto del presente trabajo, en la que se debe indicar el importe, la fecha y el destinatario público o privado.

Para entender que existe solvencia técnica, se deberá acreditar haber prestado al menos un servicio cuyo objeto sea de similares características al del presente contrato y con un importe ejecutado igual o superior a 15 000,00 euros (IVA incluido).

La acreditación se llevará a cabo mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público; en cambio, cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por este o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario.



8 - Baliabide pertsonalak atxikitzeko baldintza

Taldea bi pertsonak osatuko dute, gutxienez.

Enpresek honako baldintza hauek bermatu beharko dituzte kontratuaren zerbitzura dagoen lantaldean, aurreko betekizun moduan:

- 1.- Taldea osatzen duten pertsona guztiek gradu mailako unibertsitate prestakuntza edo lizentziatura izan beharko dute; horretarako, unibertsitate titulu hori lortu izana egiaztatu beharko da.
- 2.- Proiektuaren arduradun izendatutakoa Berdintasunerako Organoarekiko solaskidea izango da, eta, hala badagokio, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordean zuzenean ere lan egin beharko du. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean prestakuntza espezializatua izan beharko du, eta, beraz, egiaztatu beharko du gutxienez 150 orduko iraupeneko prestakuntza espezifiko egin duela, organismo ofizial batek emandakoa (unibertsitateak edo administrazio publikoak).
- 3.- Bestalde, proposatutako taldeko kideren batek egiaztatu beharko du euskaraz hizkuntza gaitasuna duela, kontratua egikaritzean bi hizkuntza ofizialetan normaltasunez lan egin ahal izateko, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailako ezagutza egiaztatzen duten titulu ofizialen bidez.

9.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa, honako hau aurreikusten da:

- 1.- Proiektuaren fase guztietan sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea: informazioa biltzea, aztertzea eta ondorioak eta proposamenak egitea.
- 2.- Lortutako emaitzak eta proiektuaren esparruan garatutako prozesua genero-ikuspegitik aztertzea.

8 - Requisito de adscripción de medios personales

El equipo estará formado al menos por dos personas.

Las empresas deberán garantizar, como requisito previo, las siguientes condiciones en el equipo de trabajo al servicio del contrato:

- 1.- Todas las personas integrantes del equipo deberán contar con formación universitaria de nivel grado o licenciatura, para lo que se deberá acreditar haber obtenido dicho título universitario.
- 3.- La empresa licitadora deberá designar una persona como responsable del proyecto, que será la interlocutora con el Órgano para la Igualdad y, en su caso, deberá trabajar directamente con la Comisión de Seguimiento y Evaluación, deberá contar con formación especializada en materia de igualdad de mujeres y hombres, para lo que deberá acreditar haber realizado una formación específica de al menos 150 horas de duración, impartida por un organismo oficial (universidad o administración pública).
- 2.- Por otro lado, alguna de las personas integrantes del equipo propuesto deberá acreditar su capacidad lingüística en euskera, con la finalidad de trabajar con normalidad en ambas lenguas oficiales en la ejecución del contrato, mediante los títulos oficiales que acrediten el conocimiento a nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

9 - Condiciones especiales de ejecución del contrato

Como condición especial de ejecución del contrato se contempla lo siguiente:

- 1.- Incorporación sistemática de la variable sexo en todas las fases del proyecto: recogida de información, análisis y elaboración de conclusiones y propuestas.
- 2.- Análisis desde la perspectiva de género tanto de los resultados obtenidos, como del proceso desarrollado en el marco del proyecto.



3.- Enpresa edo entitate esleipendunak kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, irudi edo material orotan hizkuntzaren erabilera ez sexista erabiltzea; halaber, emakumeen irudi baztertzailak edo genero-estereotipoak erreproduzitu daitezkeen ekingo da eta berdintasunezko balioak sustatuko dira, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren bidez, batzuk zein besteek, modu berean, posizio sozial ezberdinak betez eta antzeko zereginak beren gain hartuz bai esparru publikoan bai pribatuan.

4.- Konfidentzialtasuna kontratua gauzatzean: kontratu hau dela-eta egiten diren lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta, beraz, enpresa esleipendunak ezingo du beretzat erabili, ez eta hirugarrenei eman ere, kontratatutako lanei buruzko daturik edo informaziorik, ezta administrazioak emandako dokumentaziorik ere. Enpresa esleipendunak eskura dituen baliabide guztiak jarri beharko ditu, kontratua gauzatzen den bitartean eskura duen informazioaren konfidentzialtasuna gordetzeko.

10 - Aurrekontu esleipena

Kontratazio espedientearen tramitazioa egitea proposatzen da prozedura irekiaren eta tramitazio arruntaren arabera, modu horretan berrmatuko baita interesa duten enpresa guztiak parte hartu ahal izatea.

Aurrekontu esleipena partida hauen kontura egingo da:

1.170.700.227.01.14.2020: 35 000 €
5.170.700.227.01.14.2021: 40 020 €

Kontratuak sei hilabeteko iraupena izango du, eta bi urtetan banatuko da; lehenengo bi hilabeteak 2020. urteari dagozkio, eta gainerako lau hilabeteak 2021. urteari. Gainera, lehenengo bi hilabeteetan besteetan baino lan intentsitate handiagoa eskatuko da, eta, beraz, aurrekontu esleipena eskatutako lan intentsitatearen proportzioan egingo da.

3.- Empleo en toda la documentación, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato por la empresa o entidad adjudicataria de un uso no sexista del lenguaje, evitando además cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o la reproducción de estereotipos de género y fomentando valores igualitarios, a través de la presencia equilibrada de mujeres y hombres, ocupando unas y otras, del mismo modo, diferentes posiciones sociales y asumiendo funciones similares tanto en el ámbito público como en el privado.

4.- Confidencialidad en la ejecución del contrato: todos los trabajos que se realicen con ocasión del presente contrato tendrán carácter confidencial, por lo que la empresa adjudicataria no podrá utilizar para sí, ni proporcionar a terceros, datos o información alguna de los trabajos contratados, ni de la documentación facilitada por la administración. La empresa adjudicataria vendrá obligada a poner todos los medios a su alcance para preservar la confidencialidad de la información a la que tenga acceso durante la ejecución del contrato.

10 - Consignación presupuestaria

La tramitación del expediente de contratación se propone mediante procedimiento abierto y tramitación ordinaria, para garantizar así la posibilidad de que participen todas las empresas interesadas.

La consignación presupuestaria va con cargo a las siguientes partidas:

1.170.700.227.01.14.2020: 35 000 €
5.170.700.227.01.14.2021: 40 020 €

El contrato tendrá una duración de seis meses, los cuales serán divididos en dos años, los dos primeros meses corresponderán al año 2020, y los restantes cuatro meses al año 2021. Además, los dos primeros meses exigirán de mayor intensidad de trabajo que el resto, por lo que, la consignación presupuestaria se realizara de manera proporcionada a la intensidad del trabajo exigido.



11 - Helburu estrategikoen lotura

Kontratu hau "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Arauaren Jarraipena" izeneko ekintzari lotuta dago (jarduera-ildoak: LI.1180 – Genero ikuspegia foru mailan ezartzeko barne baldintza egokiak sortzea), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren 2020ko emaitzetara bideratutako aurrekontuan.

11 - Vinculación con objetivos estratégicos

Este contrato está vinculado a la acción denominada «Seguimiento de la Norma Foral para la Igualdad de mujeres y hombres» (línea de actuación: LI.1180 – Generación de condiciones internas adecuadas para la implantación de la transversalidad de género a nivel foral) del Presupuesto Orientado a Resultados del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de 2020.

Donostia, 2020ko irailaren 8a / San Sebastián, a 8 de septiembre de 2020

Sin./Fdo.: Joana Arakistain
Berdintasuneko teknikaria / Técnica de Igualdad

Sin./Fdo.: Ana Agirre Saez de Eguilaz
Berdintasuneko zerbitzburua / Jefa de servicio de
Igualdad



Eranskina / Anexo

Balio judizioen bidez balioesteko irizpideak (gehienez 45 puntu)

Criterios a valorar mediante juicios de valor (máximo 45 puntos)

Balio judizioen bidezko balioespena

Criterios a valorar mediante juicios de valor

Enpresek memoria bat aurkeztuko beharko dute zerbitzua emateko proposamenaren zehaztapena eginez, ezaugarri teknikoek agiriaren 3. puntuan xedatutakoaren arabera. Honako alderdi hauek balioetsiko dira:

Las empresas deberán presentar una memoria en la que expliquen su propuesta, conforme a lo establecido en el punto 3 del pliego de prescripciones técnicas. Se valorarán los siguientes extremos:

Balioespen irizpideak Criterios de valoración	Gehienezko puntuak Puntos máximo
1. Proposamen teknikoa : Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren ebaluazioa betetzeko egindako proposamen teknikoa eta lan-plana baloratuko dira. Balorazioa egiteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: / <i>Propuesta técnica: se valorará la propuesta técnica y el plan de trabajo elaborado para dar cumplimiento a la evaluación de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Para realizar la valoración, se tomarán en consideración los siguientes aspectos:</i>	45
1.1 Arau- eta programa-esparrua. / Marco normativo y programático.	5
1.2 Lan-plana: lan-planaren kalitatea, xehetasun maila eta agiri teknikoetan zehaztutako edukiarekiko, xedearekiko eta zereginekiko egokitasuna baloratuko dira. / <i>Plan de trabajo: se valorará la calidad, el grado de detalle del plan de trabajo y adecuación al contenido, objeto y tareas especificadas en los pliegos técnicos.</i>	15
1.3 Proposamen metodologikoa: 2/2015 Foru Arauaren ebaluazioa egiteko proposamen metodologikoaren egokitasuna eta aurreikusitako teknikak eta tresnak baloratuko dira. / <i>Propuesta metodológica: se valorará la adecuación de la propuesta metodológica, así como las técnicas y herramientas previstas, para efectuar la evaluación de la Norma Foral 2/2015.</i>	15
1.4 Proposamenaren koherentzia: lan-planaren, proposatutako metodologiaren eta hura garatzeko ezarritako kronogramaren arteko barne koherentzia baloratuko da. Kronogramak errealista izan beharko du, eta kontratuaren denbora-errealitateari egokitu. / <i>Coherencia de la propuesta: se valorará la coherencia interna entre el plan, de trabajo, la metodología propuesta y el cronograma establecido para su desarrollo. El cronograma deberá ser realista y adecuado a la realidad temporal del contrato.</i>	10



Formulen aplikazioaren bidez balioesteko irizpideak (gehienez 55 puntu)
Criterios a valorar mediante aplicación de fórmulas (máximo 55 puntos)

2. Lantaldearen egokitasuna : Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren ebaluazioa aurrera eramateko aurkezturiko lan taldearen egokitasuna baloratuko da. Balorazioa egiteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: / *Adecuación del equipo de trabajo: se valorará la adecuación del equipo de trabajo presentado para la ejecución de la evaluación de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Para realizar dicha valoración, se tomarán en consideración los siguientes aspectos:*

4

2.1. Formazioa: kontratua gauzatzera atxikitako langileen formazioa baloratuko da. Proiektuaren arduradun izendatutako pertsonaz gain, aurkeztutako lantaldeko beste pertsonaren batek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezializatua badu, eta gutxienez 150 orduko iraupena duela eta erakunde ofizial batek (unibertsitateak edo administrazio publikoak) emandakoa dela egiaztatuz gero, bi puntu emango dira. / *Formación: se valorará la formación del personal adscrito a la ejecución del contrato. En el caso de que además de la persona designada como responsable del proyecto alguna otra persona del equipo de trabajo presentado cuente con formación especializada en materia de igualdad de mujeres y hombres, debiendo acreditar una duración mínima de 150 horas y que haya sido impartida por un organismo oficial (universidad o administración pública), se valorará con dos puntos."*

2

2.2. Esperientzia: kontratua gauzatzera atxikitako langileen esperientzia baloratuko da. Gehienez ere puntu bat emango da kontratu honen xedearekin, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudiaren edo plangintzen ebaluazioekin lotuta dagoen eta behar bezala egiaztatzen den lan bakoitzeko, betiere kontratuaren arduradun gisa identifikatutako pertsonak egindakoa bada. / *Experiencia: se valorará la experiencia del personal adscrito a la ejecución del contrato. Se otorgará un máximo de un punto por cada trabajo debidamente acreditado que esté relacionado con el objeto del presente contrato, evaluaciones de normativa o de planificaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres, realizado por parte de la persona que se identifique como responsable de este contrato.*

Horretarako, lanak behar bezala egiaztatuta daudela aintzat hartzeko, lanak modu egokian egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, lan horiek kontratatzeaz arduratzen den unitateko arduradunak emandakoak. Zehazki, ziurtagirian adierazi beharko da lantaldeko kideak –izen-abizenekin– lanean parte hartu duela. Ez dira onartuko enpresa lizitatzaillearen izenean egindako ziurtagiriak. / *A estos efectos, para que se estime que los trabajos están debidamente acreditados deberán aportarse certificados de buena ejecución expedidos por la persona responsable de la unidad encargada de su contratación. En concreto, en el certificado se deberá indicar que el miembro del equipo de trabajo –con nombre y apellidos– ha participado en la ejecución del trabajo. No se admitirán los certificados realizados en nombre de la empresa licitadora.*

2



3. Eskaintza ekonomikoa

3. Oferta económica

51

3.- Eskaintza ekonomikoa

Eskaintza ekonomikoa formula honen arabera balioetsiko da:

Ehunen gainean, 0 puntu emango zaio gehienezko prezioa berdintzen duen eskaintzari eta 2 puntu gehituko dira % 1eko beherapen bakoitzeko (100 puntu, gehienez), salbu eta beherapenen batek % 50 gainditzen duenean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio eta gainerakoa tartean kokatuko baita.

$$B_{\max} \leq \% 50 \rightarrow P = 200 \times B$$

$$B_{\max} > \% 50 \rightarrow P = 100 \times B / B_{\max}$$

Non:

P: Balioetsi beharreko eskaintzaren puntuazioa

B: Beherapena = $1 - (\text{Eskaintako prezioa}) / (\text{Gehienezko zenbatekoa})$

B_{max}: Onartutako gehienezko beherapena

Neurriz kanpoko beherapenak

Ustez neurriz kanpoko beherapena duten eskaintzat joko dira onartutako eskaintzen batez bestekoaren % 10etik beherakoak.

3.- Oferta económica

La oferta económica se valorará mediante esta fórmula:

Sobre 100, se otorgará 0 puntos a la oferta que iguale el precio máximo, incrementando 2 puntos por cada 1 % de baja, siendo la puntuación máxima de 100 puntos, salvo que alguna baja supere el 50 %, en cuyo caso se le otorgarán 100 puntos y se interpolará el resto.

$$\text{Para } B_{\max} \leq 50 \% \rightarrow P = 200 \times B$$

$$\text{Para } B_{\max} > 50 \% \rightarrow P = 100 \times B / B_{\max}$$

Dónde:

P: Puntuación de la oferta a valorar

B: Baja = $1 - (\text{Importe ofertado}) / (\text{Importe máximo})$

B_{max}: Baja máxima admitida

Ofertas anormalmente bajas

Se considerarán ofertas que incurren en presunción de ser anormalmente bajas aquellas que resulten inferiores en un 10 % al promedio de las ofertas admitidas.

